

**Hautes Kontabilitateei
buruzko Irizpena
(Eusko Legebiltzarrerako
hauteskundeak
2009ko martxoaren 1a)**

**Dictamen sobre Contabilidades
ElectORAles
(Elecciones al Parlamento Vasco
1 de marzo de 2009)**

AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	5
I. ONDORIOAK	8
I.1 Lanaren zabalari mugak.....	8
I.2 Legeria betetzea	8
I.3 Diru-laguntza proposamena.....	8
II. GASTUEN ETA DIRU-LAGUNTZEN MUGAKETA	10
II.1 Hauteskunde emaitzak	10
II.2 Diru-laguntzen aurrerakinak eta jasotzeko dauden diru-laguntzak.....	10
II.3 Hautesleei igorketa zuzena eta pertsonala egiteagatiko diru-laguntza.....	11
II.4 Hauteskunde gastuetarako diru-laguntza.....	12
II.5 Gastuen gehienezko mugaketa	13
III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK	15
III.1 Izaera formaleko araudiaren ez betetzeak.....	15
III.2 Gomendioak.....	15
IV. HAUTESKUNDE KONTUAK	17
IV.1 Eusko Alderdi Jeltzalea- Partido Nacionalista Vasco EAJ-PNV.....	17
IV.2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	18
IV.3 Alderdi Popularra (PP).....	18
IV.4 Unión, Progreso y Democracia (UPyD).....	19
IV.5 Eusko Alkartasuna (EA).....	19
IV.6 Ezker Batua-Berdeak (EB-B).....	20
IV.7 Aralar	20
ALEGAZIOAK.....	21

INTRODUCCIÓN.....	23
I. CONCLUSIONES	26
I.1 Limitaciones al alcance del trabajo	26
I.2 Cumplimiento de la legislación	26
I.3 Propuesta de subvención	26
II. LÍMITE DE GASTOS Y SUBVENCIONES	28
II.1 Resultados electorales.....	28
II.2 Adelantos de subvenciones y subvenciones pendientes de recibir	28
II.3 Subvención por envío directo y personal a los electores	29
II.4 Subvención gastos electorales.....	30
II.5 Límite máximo de gastos	31
III. DEFICIENCIAS Y RECOMENDACIONES	33
III.1 Incumplimientos de la normativa de carácter formal.....	33
III.2 Recomendaciones.....	33
IV CUENTAS ELECTORALES	35
IV.1 Eusko Alderdi Jeltzalea- Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV).....	35
IV.2 Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	36
IV.3 Partido Popular (PP)	36
IV.4 Unión, Progreso y Democracia (UPyD).....	37
IV.5 Eusko Alkartasuna (EA).....	37
IV.6 Ezker Batua-Berdeak (EB-B).....	38
IV.7 Aralar	38
ALEGACIONES	39

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 22a
Vitoria-Gasteiz, a 22 de julio de 2009

SARRERA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legean aurreikusitakoari jarraiki, 15/1998, 6/2000 eta 1/2003 legeek aldarazitakoa (aurrerantzean ELHL), Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) 2009ko martxoaren 1ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia eskuratu zuten edo hauteskundeetako diru-laguntza aurreratzeko eskatu zuten hautagaitzen sarrera eta gastuen kontabilitatea fiskalizatu du.

Fiskalizazioak indarreko arautegiari jarraiki, honako alderdi hauek egiaztatzea izan du helburu:

- 1.-**ELHLren 140 artikulua hauteskunde sarrera eta gastuen kontabilitatea aurkezteko moldeari buruz ezartzen dituen baldintzak
- 2.-**Irekitako edo gaitutako banku kontuak, Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordeari jakinarazitakoak (aurrerantzean AEHB), hautagaitzek diru-funtsak biltzeko eta hauteskunde gastuak ordaintzeko erabili dituztela egiaztatzea, ELHLren 141 eta 142.1 eta 2 artikuluek ezartzen dituzten berezitasunekin.
- 3.-** Aurrez egindako hauteskunde gastuak ordaintzeko irekitako kontuen saldoen erabilera, bozketa ostean 90 eguneko epean (ELHLren 142.3 artikulua).
- 4.-** Norbanakoek egiten dituzten ekarpenetan izena, helbidea eta nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen zenbakiaren ebidentzia dirua ezartzeko egintzan (ELHLren 143.1 artikulua) eta 145.4 artikulua adierazten duen eta 2009ko urtarrilaren 8ko Aginduak gaurkotutako ekarpen horien banakako muga gehiengoa errespetatu dela egiaztatzea, 11.684,88 euroan ezarri dena.
- 5.-** Alderdiak hauteskunde prozesua ordaintzeko emandako diru-baliabideen jatorria (ELHLren 143.3 artikulua).
- 6.-** Hauteskunde-kontu korranteetara ondoko erakunde hauetatik fondoak ekartzeko debekua errespetatzea: zeinahi administrazio edo erakunde publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaz besteko entitateetatik; jabetza Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziek edo udalek duten sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; baita, indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzu eman edo hornidura edo lanak egiten dituzten enpresetatik (ELHLren 145.1. artikulua).
- 7.-** Atzerriko erakunde zein pertsonengandik edo Autonomia Erkidegoz kanpoko helbidea dutenengandik edo legezko ez diren jardueretatik fondoak ekartzeko debekua errespetatzea (ELHLren 145.2 eta 3 artikulua).
- 8.-** Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zituzten hautagaitzei Eusko Jaurlaritzak emandako hauteskundeetako diru-laguntzen aurrerapenetan gorengo muga gordetzea. Aurreratutako kopuruak ezin gaindituko du hautagaitza horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako diru-laguntzaren % 30a (ELHLren 144.2 artikulua).
- 9.-** Bigarren aurrerakinaren zenbatekoa hautagaitzek eskuratutako hauteskunde emaitzen arabera dagozkien diru-laguntzen zenbatekoaren % 90aren pareko izango da, kasua balitz, aurreko ataleko aurrerakina murriztuz (ELHLren 144.7 artikulua).

10.-Hauteskunde gastuak egiaz kontratatu direla horretarako gaitutako aldian, hau da, hauteskundeak deitzen diren datatik hautagaiak izendatu arteko datara arte, ELHLren 146 artikuluan erabakitakoaren arabera.

11.-ELHLren 147 artikuluari jarraiki legez finkatutako gastuetarako mugak betetzea, zeinak agintzen baitu inongo alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-taldek ezingo duela ezarritako mugak gaindituko dituzten hauteskunde gastuak egin. Barne Sailburuaren 2009ko urtarrilaren 22ko Aginduak kopuru hori 1.478.187,57 eurotan finkatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hauteskunde barrutien multzoan aurkezten direnentzako. Gainera, hautesleei propaganda, gutunazal eta papeletak edo hauteskunde publizitateko bestelako zeinahi elementu modu zuzenean eta pertsonalean igortzeak eragindako hauteskunde gastuak 0,21 euroekin diruz laguntzen dira dena delako hautagaitzak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147 artikulua aurreikusten duen mugaren baitan barne hartua egongo, betiere, atal honek aipagai duen jarduera egiaz gauzatu dela justifikatzen bada (ELHLren 151.2 artikulua).

12.-Egindako gastuen justifikazioa, kontularitza, merkataritza eta fiskalaritzako printzipio eta arauak agintzen dituzten gutxieneko betekizunak gordetzen dituzten agirien bitartez.

13.-Prentsa eta irratan, kartel eta publizitate hesietan publizitate kontzeptuan egindako gastuen mugak betetzeak, hurrenez hurren, ELHLren 72 eta 75. artikuluek ezarritako mugak gordetzen dituzte.

Hauteskunde prozesu honi ezargarria zaion legedia honako hau da:

- 5/1990 Legea, ekainaren 15koa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- 15/1998 Legea, ekainaren 19koa, ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldarazten duena, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- 6/2000 Legea, urriaren 4koa, ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldarazten duena, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- 1/2003 Legea, ekainaren 28koa, ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldarazten duena, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- Lehendakariaren 1/2009 Dekretua, urtarrilaren 2koa, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak deitzen dituena.
- 2009eko urtarrilaren 8ko Agindua, Ogasun eta Herri-Administrazioaren Sailburuarena, 5/1990 Legean jasotako kopuruak gaurkotzeari buruzkoa.
- Barne Sailburuaren 2009ko urtarrilaren 22ko Agindua, 2009ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hauteskunde-gastuak mugatzeko ezarritako kopuruak zehazteari buruzkoa.

Hona hemen 2009ko martxoaren 1ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan kandidaturak aurkeztu eta ordezkaritza eskuratu duten alderdi politikoak:

ALDERDI POLITIKOA	SIGLAK
Eusko Alderdi Jeltzalea	EAJ-PNV
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE)	PSE-EE (PSOE)
Alderdi Popularra	PP
Unión, Progreso y Democracia	UPyD
Eusko Alkartasuna	EA
Ezker Batua-Berdeak	EB-B
Aralar	Aralar

Inongo partiduk ez du hauteskundeetako diru-laguntzaren aurrerakina eskatu ordezkaritzarik eskuratu izan gabe.

I. ONDORIOAK

I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK

Alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea ez dagokio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Kontuen Epaitegiari baizik (Estatukoari). Honenbestez, HKEEK ez du aurkeztutako kontabilitatean erregistratu gabeko hauteskunde gastuen balizko izatea egiaztatu, ez eta alderdi politikoen kontabilitatearen bitartez legezko debeku edo mugaketak betetzen ez dituzten diru-sarrerak bideratu ote diren.

I.2 LEGERIA BETETZEA

- Eusko Jaurlaritzak bigarren aurrerakinaren ordainketa 2009ko uztailaren 14an gauzatu du eta bi hilabetez gainditu du ELHLren 144. artikulua 7. atalak agindutako epea.
- Txosten hau idatzi dugun datan Aralar alderdi politikoak ordaindu gabe ditu hauteskunde gastuei dagozkien 252.888,87 euro, ELHLren 142.3 artikulua arabera epea botazio ondoko 90 egunetara amaitzen baita.

I.3 DIRU-LAGUNTZA PROPOSAMENA

Hauteskunde gastuen diru-laguntza Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura egiten da, ELHLren 151.1 artikulua jarraiki, eta kopuruak 2009ko urtarrilaren 8ko Agindu bitartez gaurkotu dira. Diru-laguntzak ez ditzake inola ere justifikatutako gastuak gainditu, ez eta horiek 2009ko urtarrilaren 22ko Agindu bitartez finkatutako gehiengo muga baino handiagoak izan, behin hautesleei propaganda, gutunazal eta hauteskunde txartelak edo hauteskunde publizitateko bestelako zeinahi elementu modu zuzenean eta pertsonalean igortzeak eragindako gastuak murriztu ondoren.

Irizpide hauen arabera, hona hemen egoki justifikatutako gastuak, zorpetutako eta ordaintzeko dauden diru-laguntzak:

HAUTESKUNDE GASTUEN DIRU-LAGUNTZA				euro
HAUTAGAITZA	Gastuak Justifikatuak	Diru-laguntza zorpetua	Aurrerakina ordaindua	Diru-laguntza ordaindu gabea
EAJ-PNV	1.561.643,66	1.561.643,66	1.419.541,20	142.102,46
PSE-EE (PSOE)	1.822.967,14	1.388.264,24	1.245.724,72	142.539,52
PP	1.813.454,32	944.518,00	846.412,22	98.105,78
UPyD	169.723,14	100.402,31	-	100.402,31
EA	940.859,44	200.586,59	180.527,93	20.058,66
EB-B	881.225,27	196.684,79	163.709,29	32.975,50
Aralar	563.249,14	500.619,54	581.204,12	(80.584,58)
GUZTIRA	7.753.122,11	4.892.719,13	4.437.119,48	455.599,65

Zorpetutako diru-laguntzak hautesleei modu zuzenetan eta pertsonalean egindako igorketari dagokiona ez ezik, gainerako hauteskunde-gastuei dagokiena ere barne hartzen

du, hurrenez hurren, II.3 eta II.4 ataletan zehaztu direnak. Jasotako aurrerakinen xehapenak II.2 atalean barne hartu da.

IV. atalean hauteskunde kontabilitateen xehapena barne hartu da, aurkeztutako kontabilitateei egindako doiketak zehaztuz.

II. GASTUEN ETA DIRU-LAGUNTZEN MUGAKETA

II.1 HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

Lurralde Historiko bakoitzeko Hauteskunde Batzordeek jaulkitako hautetsiak izendatzeko akten arabera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordeak baitetsitakoa, formazio bakoitzari dagozkion diru-laguntza publikoak zehazteko zenbagarri diren boto eta aulkien kopurua honako hau da:

HAUTAGAITZA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	BOTOAK	AULKIAK	BOTOAK	AULKIAK	BOTOAK	AULKIAK	BOTOAK	AULKIAK
EAJ-PNV.....	45.767	8	241.732	12	112.101	10	399.600	30
PSE-EE (PSOE).....	47.523	9	177.875	8	92.714	8	318.112	25
PP.....	32.188	6	81.837	4	32.123	3	146.148	13
UPyD	5.990	1	10.916	0	5.327	0	22.233	1
EA	5.280	0	17.033	0	15.885	1	38.198	1
EB-B.....	5.053	0	20.080	0	11.240	1	36.373	1
Aralar	6.613	1	24.639	1	31.262	2	62.514	4
Gainerako hautagaitzak....	2.247	0	8.015	0	2.756	0	13.018	0
GUZTIRA	150.661	25	582.127	25	303.408	25	1.036.196	75

Hautesle errolda, hautetsiak izendatzeko aipatutako akten arabera, honako hau izan da:

LURRALDE	ERROLDA
HISTORIKOA	GUZTIRA
ARABA	248.231
GIPUZKOA.....	574.988
BIZKAIA.....	952.844
GUZTIRA	1.776.063

Erroldaren Bulego Nagusiaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan pertsona bat gutxiago dago erroldatua.

II.2 DIRU-LAGUNTZEN AURRERAKINAK ETA JASOTZEKO DAUDEN DIRU-LAGUNTZAK

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legearen 144 artikularen 2. atalak agintzen du “Eusko Jaurlaritzak hauteskundeetako diru-laguntzen aurrerakinak emango dizkiela Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu dituzten alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei. Aurreratutako diru-kopuruak ezingo du alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-talde horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan jasotako diru-laguntzaren % hogeita hamarra gainditu.

144. artikulua 7. atalak dio behin hauteskundeak egin ondoren eta Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordearen aurrean hauteskunde kontabilitatea aurkezteko epea amaitu ondorengo 15 egunetan zehar, Ogasuneko Sail arduradunak administratzaile orokorreari eta bigarren aurrerakin kontzeptuan, hautagaitzek eskuratutako hauteskunde emaitzen arabera dagozkien diru-laguntzen zenbatekoaren % 90ari dagokion kopurua ordainduko duela, kasua balitz, aurreko ataleko aurrerakina murriztuz. Aurrerakin hau eskuratu ahal izateko, alderdiek banku abala aurkeztu beharko dute jasotako aurrerakin guztien %eko 10arekin.

Hona hemen 2009ko martxoaren 1eko Hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zuten alderdi politiko bakoitzeko diru-laguntzen aurrerakinak:

DIRU-LAGUNTZAREN AURRERAKINA			Euroak
HAUTAGAITZA	LEHENENGO AURRERAKINA	BIGARREN AURRERAKINA	GUZTIRA
EAJ-PNV.....	316.468,05	1.103.073,15	1.419.541,20
PSE - EE (PSOE).....	307.655,91	938.068,81	1.245.724,72
PP.....	274.043,14	572.369,08	846.412,22
UPyD.....	-	-	-
EA.....	105.489,35	75.038,58	180.527,93
EB-B.....	163.709,29	-	163.709,29
Aralar.....	51.445,91	529.758,21	581.204,12
GUZTIRA	1.218.811,65	3.218.307,83	4.437.119,48

Bigarren aurrerakina zehazteko egindako kalkuluak, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionz, AEHBren 2009ko martxoaren 18ko erabaki bitartez finkatutako errolda hartu du oinarri, 2009ko ekainaren 22an argitara emandako akatsen zuzenketa aintzat hartu gabe. Berebat, Udal batek abiarazitako espediente hartu da kontutan, hauteskunde propaganda kentzeak eragindako gastuei dagokien zenbatekoa murriz dakion, udal zerbitzuek gauzatu duten lana, alegia.

Txosten hau jaulki dugun datan EB-Bri bigarren aurrerakinaren ordainketa ez zaio ordaindu, alderdi horrek ez duelako dagokion abala aurkeztu. Berebat, ez zaio bigarren aurrerakina UPyD alderdiari ordaindu, alderdiak berak emandako aginduei jarraiki.

II.3 HAUTESLEEI IGORKETA ZUZENA ETA PERTSONALA EGITEAGATIKO DIRU-LAGUNTZA

Alderdi politikoek diru-laguntza jasoko dute hautesleei propaganda, gutunazal eta papeleta edo hauteskunde publizitateko bestelako zeinahi elementu modu zuzen eta pertsonalean igortzeak (posta bidezko igorketa) eragindako gastuen kontzeptuan. Diru-laguntza hori hautesle bakoitzeko 0,21 eurokoa izango da delako hautagaitzak ordezkariak eskuratu duen barruti bakoitzean, betiere, jarduera egiaz gauzatu dela eta gastuaren muga gorde dela justifikatzen bada.

Honen ganean, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak 1998ko irailaren 11n egindako bileran erabaki zuen hautesletzat hartuko dela hauteskunde propagandaren igorketa egin zaion hura.

Hautagaitza bakoitzak egindako igorketa zuzenen gehienezko kopurua gutxienez aulki bat eskuratu duten barrutietan eta ezargarri zaien gehieneko diru-laguntza honako hau da:

IGORKETA ZUZENAGATIKO DIRU-LAGUNTZA				Euroak
HAUTAGAITZA	DIRUZ-LAGUNGARRI DIREN IGORKETAK	GEHIENEO DIRU-LAG.	JUSTIFIKATUTAKO GASTUAK	DIRU-LAG. EZARGARRIA
EAJ-PNV	1.776.063	372.973,23	480.351,02	372.973,23
PSE-EE (PSOE)	1.776.063	372.973,23	404.734,39	372.973,23
PP	1.776.063	372.973,23	372.907,55	372.907,55
UPyD	137.500	28.875,00	57.722,15	28.875,00
EA	574.988	120.747,48	307.916,04	120.747,48
EB-B	574.988	120.747,48	352.810,90	120.747,48
Aralar	1.732.340	363.791,40	223.684,75	223.684,75
GUZTIRA		1.753.081,05	2.200.126,80	1.612.908,72

Diruz lagungarri diren igorketa modura alderdiek sinesgarriri justifikatu dituzten haiek barne hartu dira, 1998ko irailaren 11n Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak (AEHB) egindako interpretazioari jarraiki. Kontzeptu honen baitan diruz lagundu ez diren gastuak gainerako hauteskunde gastuetan barne hartu dira.

II.4 HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA

Hauteskunde propaganda igortzeagatik diru-laguntzaz gain, gainerako gastuak lagunduko dira diruz ondotik zehaztutako kopuruekin, eskuratutako boto eta ordezkari kopuruaren arabera, 2009ko urtarrilaren 8ko Agindu bidez onetsitako ondoko kopuruei jarraiki:

- Hogeita lau mila, bederatziehun eta hogeita hamabost koma laurogeita hamar euro (24.935,90 euro) Eusko Legebiltzarrean eskuratutako aulki bakoitzeko.
- Zero koma laurogeita lau euro (0,84 euro) hautagaitza bakoitzak eskuratutako boto bakoitzeko, betiere kideetako batek gutxienez dagokion barrutian aulkia eskuratu badu.
- Berrogeita bat mila, bostehun eta berrogeita hemeretzi koma laurogeita bat euro (41.559,81 euro) hauteskunde-barruti bakoitzeko, hauteskunde barrutian gutxienez aulki bat eskuratzen dutenentzat.

Honen arabera, alderdi bakoitzak gehienera eskura dezakeen diru-laguntza ondokoa da:

HAUTESKUNDE GASTUETARAKO GEHIENEZKO DIRU-LAG.				Euro
HAUTAGAITZA	AULKIAK	BOTOAK	ORDEZKARITZA	GUZTIRA
EAJ-PNV.....	748.077,00	335.664,00	124.679,43	1.208.420,43
PSE-EE (PSOE).....	623.397,50	267.214,08	124.679,43	1.015.291,01
PP.....	324.166,70	122.764,32	124.679,43	571.610,45
UPyD.....	24.935,90	5.031,60	41.559,81	71.527,31
EA.....	24.935,90	13.343,40	41.559,81	79.839,11
EB-B.....	24.935,90	9.441,60	41.559,81	75.937,31
Aralar.....	99.743,60	52.511,76	124.679,43	276.934,79
GUZTIRA	1.870.192,50	805.970,76	623.397,15	3.299.560,41

Diru-laguntza hauek hautagaitza bakoitzak egiaz justifikatutako gastuek mugatzen dituzte eta honenbestez, alderdiek kobratzeko duten diru-laguntza bi kopuruetatik txikiena izango da, diru-laguntza edo justifikatutako gastua, alegia.

HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA					Euro
HAUTAGAITZA	GASTUAK GUZTIRA	POSTA-IGORK. DIRU-LAG.	HAUTESKUNDE GASTUAK	DIRU-LAG. EZARGARRIA	
EAJ-PNV.....	1.561.643,66	372.973,23	1.188.670,43	1.188.670,43	
PSE-EE (PSOE).....	1.822.967,14	372.973,23	1.449.993,91	1.015.291,01	
PP.....	1.813.454,32	372.907,55	1.440.546,77	571.610,45	
UPyD.....	169.723,14	28.875,00	140.848,14	71.527,31	
EA.....	940.859,44	120.747,48	820.111,96	79.839,11	
EB-B.....	881.225,27	120.747,48	760.477,79	75.937,31	
Aralar.....	563.249,14	223.684,75	339.564,39	276.934,79	
GUZTIRA	7.753.122,11	1.612.908,72	6.140.213,39	3.279.810,41	

Aurreko taulan jasotako guztizko gastuak bat datoz alderdiek aurkeztutakoekin eta horiei IV. atalean adierazitako igoera edo beherapen doiketak aplikatu zaizkie.

Zuzen justifikatutako gastu guztietatik propagandaren igorketa zuzen eta pertsonalagatik jada diruz lagundutako gastuak murriztu dira. Modu honetara, gainerako gastuak aurreko taulan zehaztutako jasotzeko kopuru gehienekoarekin alderatzen dira eta kopuruetan txikien den hura laguntzen da diruz.

II.5 GASTUEN GEHIENEZKO MUGAKETA

EAEn dauden hiru hauteskunde barrutietariko bakar batean hautagaitzak aurkeztu dituzten alderdi politikoei dagokienez, barrutien araberrako hauteskunde gastuek ezingo dituzte ondoko kopuruak gainditu:

	Euro
ARABA.....	325.283,64
BIZKAIA	667.529,11
GIPUZKOA	485.374,82

Hiru barrutietarik bitan hautagaitzak aurkeztu dituzten haiek, dagozkionak batuko dituzte.

Aulkiren bat lortu duten alderdi guztiak Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hauteskunde barrutietan aurkeztu dira eta honenbestez, hauteskunde gastuen muga, posta bidezko igorketa kontzeptuan diruz lagundutako gastuak murriztu ondoren 1.478.187,57 eurokoa izango da.

Alderdi politikoetarik batek ere ez du muga hori gainditu.

Gainera, ELHLren 72 eta 75 artikuluek mugak ezartzen dituzte prentsa-irratian eta publizitate hesietan publizitate kontzeptuko gastuetarako, hurrenez hurren, aurreko mugekiko % 20 eta % 25ean erreferentziatuz.

Ondoko taulak alderdi bakoitzak gastu kontzeptu hauetan egindako gastuak eta aurkeztu diren barrutiekiko ezargarri zaizkien mugak erakusten ditu:

MUGAK	Euro			
	PRENTSA-IRRATI GASTUAK		PUBLIZITATE HESIETAN GASTUAK	
HAUTAGAITZA	MUGA	GASTUA	MUGA	GASTUA
EAJ-PNV	295.637,51	257.946,76	369.546,89	412.131,22
PSE-EE (PSOE)	295.637,51	287.591,29	369.546,89	362.335,24
PP	295.637,51	268.941,06	369.546,89	298.438,69
UPyD.....	295.637,51	36.280,91	369.546,89	7.694,28
EA.....	295.637,51	151.700,17	369.546,89	89.711,00
EB-B	295.637,51	352.732,44	369.546,89	46.426,90
Aralar.....	295.637,51	174.185,86	369.546,89	7.005,45
GUZTIRA	2.069.462,57	1.529.378,49	2.586.828,23	1.223.742,78

III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK

III.1 IZAERA FORMALEKO ARAUDIAREN EZ BETETZEAK

- Aralar alderdiak ez dio Euskal Herriko Hauteskunde Batzordeari hauteskunde-kontu korrontea ireki duela; Eusko Alkartasunak, berriz, ELHLren 141.1 artikulua agintzen duen epearekiko 6 eguneko berandutzarekin egin du, ireki ondoko 24 orduetan jakinarazteko agintzen baitu.
- Aralar alderdiak 1.348,72 euroko hauteskunde gastuen ordainketak hauteskundekoa ez den kontu batetik egin ditu, ELHLren 142.1 artikulua urratuz.
- Aralar alderdiak ez du Kontabilitate Plan Orokorrari egokitutako kontabilitate xehekatua aurkeztu, ELHLren 140 artikulua agintzen duen moduan; baizik eta, gastuen zerrenda bat eta sarreraren beste bat soilik eta horietatik eskuratu ditugu irizpen honetan jasotako datuak.

III.2 GOMENDIOAK

ELHLren 151.2 artikulua dio “gainera, hautesleei propaganda, gutunazal eta hauteskunde txartelak edo hauteskunde publizitateko bestelako zeinahi elementu modu zuzenean eta pertsonalean igortzeak eragindako hauteskunde gastuak euroko 21 zentimorekin diruz laguntzen dira dena delako hautagaitzak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147 artikulua muga barruan egongo”.

Nolanahi dela ere, ELHLren inongo artikulutan ez dira kontzeptu honen izenean egotzi behar diren gastuak zehaztu.

Artikulu honen interpretazioa AEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bilkuran aztertu zuen eta hautesle bakoitzeko diru-laguntza zer den eta gastu horiek nola justifikatu behar diren deskribatu zuen; ordea, ez zuen zein gastu barne har daitezkeen finkatu.

Kontzeptu honi egotzi beharreko gastuak, diru-laguntza berariazko bati loturik daudenak, egungo zehazgabetasuna eragotziko duen zorrotasun handiagoz arautu behar dira.

Alderdi politiko ezberdinek hauteskunde kontabilitateak aurkeztean eta euskarri modura azaltzen dituzten justifikagiritan, datozen deialdiei dagokienez zuzendu beharreko hainbat alderdi ikusi ditugu:

- Gastuak biltzen dituzten kontularitzako kontzeptuak guztiz bestelakoak dira batzuetatik besteetara. Komenigarria litzateke gastu kontzeptuak ELHLren 146 artikulua egiten duen sailkapenera egokitzea, propaganda eta publizitateko gastuak prentsa eta irratikoen artean eta propaganda grafikokoak toki publikoetan bereiziz, izan ere, muga espezifikotara mugatuak baitaude, ELHLren 72 eta 75 artikuluei jarraiki.

- Dokumentazio osoa eta bereziki emaitzen balantzea eta kontua komenigarria da ELHLri zigilatua eta alderdiko hauteskunde-administratzaile orokorrak izenpetuak igortzea.
- Aurkeztutako ordainagirik garbi jaso behar dute gastua zein datetan eta zein kontzepturekin egin den.
- Gastu txikiek argi eta garbi zehaztu behar dute zein datetan egin diren, nor egin dituen eta zein kontzeptu besarkatzen dituzten. Gainera, dagozkion ordainketa agiriak aurkeztu behar dira, ordainketa nori egin zaion garbi utziko duena.

II.2 atalean aipatutakoaren arabera, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde taldeek ELHLren 80. artikulua xedatutakoari jarraiki, jartzen duten propaganda grafiko guztia kentzeko obligazioa dute. Beteko ez balute, Udalek kendu beharko dute, horrek eragindako gastuak hauteskundeetako diru-laguntza publikotik murriztuta eskuratu ahal izango dituztela. Diru-laguntza jasotzeko eskubidea sortzen ez duten hautagaitzei erreklamazioa Epaitegien aurrean premiamendu bidea erabilita egin beharko zaie, baldin eta eurek aurre egiten ez badiote.

IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK

Ondotik aurkeztuko ditugun hauteskunde-kontabilitateak hautagaitzek 2009ko apirilaren 30ean AEHBra igorri zituztenak dira; bereizirik aurkeztu ez dituztenetan, bereizi egin ditugu publizitatea modu zuzen eta pertsonalean igortzeak eragindako gastuak (posta bidezko igorketa) eta berebat, berdindu egin ditugu kontzeptuak ELHLk 146. artikuluan egiten duen zati-banaketara egokituz.

Finantza gastuen idazpuruan, 2009ko ekainaren 22ra arte zorpetutako interesak hartu dira gogoan, hauteskunde kanpainarako jasotako kredituetatik egiaz egindako erabileren arabera.

Hauteskunde-kontabilitate guztien diru-sarrerak berdintzearen, hauteskunde emaitzen arabera jasotzeko dagoen diru-laguntza teorikoaren balioespena barne hartu dugu erregistratu ez den kontabilitate haietan.

Diruz lagungarri ez diren gastuak eta euskarritu gabeko sarrerak aparteko kontzeptuan barne hartzen dira eta dagozkion kontuen ondoren xehatu dira.

IV.1 EUSKO ALDERDI JELTZALEA

Hona hemen 2009ko apirilaren 30ean hauteskunde kontabilitatea:

		Euro	
Igork. zuzen eta pers. gtu. (posta igorketa)	480.351,02	Diru-laguntzaren aurrerakina	316.468,05
Publizitatea eta propaganda	699.967,62	Jasotzeko dagoen diru-laguntza....	1.264.925,61
Alokairuak	126.581,22	Alderdien ekarpena	1.290.000,00
Garraioak eta desplazamenduak.....	48.326,96	Kontu korrontearen interesak	260,77
Beste zenbait.....	206.416,84		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK	1.561.643,66	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	2.871.654,43
Gastu ez subentzionagarriak	42.584,33	Justifikatu gabeko sarrerak.....	-
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	1.604.227,99	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	2.871.654,43
Diruzaintza	2.500,83	Maileguak.....	-
Zordunak.....	1.264.925,61	Hartzekodunak.....	-
	2.871.654,43		2.871.654,43

Diruz lagungarri ez diren gastuen kontusailean ELHLren 75.2 artikuluan finkatutako gehiengo mugaren gainean karteletan eta beste era bateko propaganda grafikoetan egindako gehiegizko gastua barne hartu da.

IV.2 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

Kontabilitate bat aurkeztu du propagandaren igorketa zuzen eta pertsonalari dagokionez (posta bidezko igorketa) eta beste bat, gainerako gastuei dagokienez. Hona hemen 2009ko apirilaren 30ean hauteskunde kontabilitatea:

		Euro	
Igork. zuzen eta perts. gtu. (posta igorketa)	404.734,39	Diru-laguntzaren aurrerakina	307.655,91
Publizitatea eta propaganda	950.897,25	Jasotzeko diru-laguntza	1.080.608,33
Garraioak eta desplazamenduak	7.899,54	Alderdiaren ekarpena	475.311,24
Alokairuak	319.239,14		
Finantza gastuak	16.132,03		
Hainbat gastu	124.064,79		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK	1.822.967,14	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	1.863.575,48
Gastu ez subentzionagarriak	-	Justifikatu gabeko sarrerak	-
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	1.822.967,14	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	1.863.575,48
Diruzaintza	-	Maileguak	1.027.392,04
Zordunak	1.080.608,33	Hartzekodunak	12.607,95
	2.903.575,47		2.903.575,47

IV.3 ALDERDI POPULARRA

Hona hemen 2009ko apirilaren 30ean hauteskunde kontabilitatea:

		Euro	
Igork. zuzen eta perts. gtu. (posta igorketa)	372.907,55	Diru-laguntzaren aurrerakina	274.043,14
Publizitatea eta propaganda	871.267,86	Jasotzeko diru-laguntza	670.540,54
Alokairuak	299.425,87	Alderdiaren ekarpena	36.994,84
Garraioak eta desplazamenduak	63.639,19		
Finantza gastuak	18.305,41		
Hainbat gastu	187.908,44		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK	1.813.454,32	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	981.578,52
Gastu ez subentzionagarriak	-	Justifikatu gabeko sarrerak	-
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	1.813.454,32	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	981.578,52
Diruzaintza	-	Maileguak	1.484.110,93
Zordunak	670.540,54	Hartzekodunak	18.305,41
	2.483.994,86		2.483.994,86

IV.4 UNIÓN, PROGRESO Y DEMOCRACIA (UPYD)

Hona hemen 2009ko apirilaren 30ean hauteskunde kontabilitatea:

		Euro	
Igork. zuzen eta perts. gtu. (posta igorketa)	57.722,15	Diru-laguntzaren aurrerakina	-
Publizitatea eta propaganda	78.906,38	Jasotzeko diru-laguntza	123.655,82
Alokairuak	26.545,12	Alderdiaren ekarpena	171.000,00
Garraioak eta desplazamenduak	6.280,83		
Finantza gastuak:	268,66		
Hainbat gastu	-		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK	169.723,14	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	294.655,82
Gastu ez subentzionarioak	-	Justifikatu gabeko sarrerak	-
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	169.723,14	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	294.655,82
Diruzaintza	1.276,86	Hartzekodunak	-
Zordunak	123.655,82	Maileguak	-
	294.655,82		294.655,82

Hautagaitza honen kontabilitatean aurkeztutako maileguaren zenbatekoa alderdiaren ekarpen modura hartu da, izan ere, ez baita hauteskunde kanpaina honetarako eman eta honenbestez, aurkeztutako finantza gastuetarik batzuk ezin onartu izan baitira ELHLren 146.g artikulua betekizunak betetzen ez zituztelako.

IV.5 EUSKO ALKARTASUNA

Hona hemen 2009ko apirilaren 30ean hauteskunde kontabilitatea:

		Euro	
Igork. zuzen eta perts. gtu. (posta igorketa)	307.916,04	Diru-laguntzaren aurrerakina	105.489,35
Publizitatea eta propaganda	510.098,06	Jasotzeko diru-laguntza	95.097,24
Alokairuak	60.503,78	Kontu korrontearen interesak	0,53
Langileei ordainketak	13.952,98	Alderdiaren ekarpena	836.000,00
Garraioak eta desplazamenduak	15.739,09		
Hainbat gastu	32.649,49		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK	940.859,44	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	1.036.587,12
Gastu ez subentzionarioak	-	Justifikatu gabeko sarrerak	-
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	940.859,44	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	1.036.587,12
Diruzaintza	630,44	Hartzekodunak	-
Zordunak	95.097,24	Maileguak	-
	1.036.587,12		1.036.587,12

IV.6 EZKER BATUA-BERDEAK

Hona hemen 2009ko apirilaren 30ean hauteskunde kontabilitatea:

		Euro	
Igork. zuzen eta perts. gtu. (posta igorketa)	352.810,90	Diru-laguntzaren aurrerakina	163.709,29
Publizitatea eta propaganda	375.055,92	Jasotzeko diru-laguntza	32.975,50
Alokairuak	105.832,01	Alderdiaren ekarpena	222.000,00
Garraioak eta desplazamenduak	22.734,05	Diru-sarrera finantzarioak	7,2
Finantza gastuak	9.362,39		
Hainbat gastu	15.430,00		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK	881.225,27	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	418.691,99
Gastu ez subentzionagarriak	57.094,93	Justifikatu gabeko sarrerak	-
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	938.320,20	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	418.691,99
Diruzaintza	215.158,68	Maileguak	760.000,00
Zordunak	32.975,50	Hartzekodunak	7.762,39
	1.186.454,38		1.186.454,38

Diruz lagungarri ez diren gastuen kontusailean ELHLren 72.1 artikuluan finkatutako gehiengo mugaren gainean prentsa eta irrati-publizitatean egindako gehiegizko gastua barne hartu da.

IV.7 ARALAR

Hona hemen 2009ko apirilaren 30ean hauteskunde kontabilitatea:

		Euro	
Igork. zuzen eta perts. gtu. (posta igorketa)	223.684,75	Diru-laguntzaren aurrerakina	51.445,91
Publizitatea eta propaganda	257.616,28	Jasotzeko diru-laguntza	598.462,11
Alokairuak	34.468,95	Kontu korrontearen interesak	0,26
Garraioak eta desplazamenduak	9.145,12	Alderdiaren ekarpena	46.000,00
Langileei ordainketak	4.241,69		
Finantza gastuak	2.626,07		
Hainbat gastu	31.466,28		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK	563.249,14	JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK	695.908,28
Gastu ez subentzionagarriak	41.052,40	Justifikatu gabeko sarrerak	-
KONTABILIZATUTAKO GASTUAK	604.301,54	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK	695.908,28
Diruzaintza	1.298,71	Maileguak	214.212,81
Zordunak	598.462,11	Hartzekodunak	252.888,87
		Subentz. gabeko gtu. hartzek.	41.052,40
	1.204.062,36		1.204.062,36

Diruz lagungarri ez direla iritzi diegun gastuen zenbatekoa foiletoak eta gutuneria egiteko ekipamenduaren erosketa faktura bati dagokio, izan ere, inbertsioak ez baitira gastu subentzionagarritzat hartzen.

ALEGACIONES AL DICTAMEN SOBRE CONTABILIDADES ELECTORALES (ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO, 1 DE MARZO DE 2009), PRESENTADAS POR ARALAR

Según lo dispuesto en la Ley 7/88 artículo 44º1 de la misma.

Apartado III. 1º Deficiencias y recomendaciones

- Con referencia a la comunicación de la apertura de la cuenta corriente electoral, según el artículo 141.1, alegar que el error de la comunicación está subsanado con la documentación pertinente¹.
- Con referencia a los pagos de gastos electorales por un importe de 1.348,72 euros desde una cuenta no electoral (art. 142.1) alegar que efectivamente se realizó el pago de esa cuenta por una razón y fue que correspondía a la Seguridad Social y al IRPF que se paga a mes vencido y al trimestre respectivamente.
- Con referencia a la contabilidad ajustada al Plan General de contabilidad según el artículo 140 de la CEPV, se ha presentado una relación de ingresos y gastos totalmente justificada con los documentos oportunos y no con el cierre, dado que la contabilidad electoral no está integrada en el ejercicio del 2.009 del partido y por tanto, no se ha cerrado el ejercicio.

Apartado IV. Aralar

Según el artículo 146 de la Ley capítulo IV gastos electorales el apartado h dice “cuanto sean necesarias para la organización y funcionamiento de las oficina y servicios precisas para las elecciones”. Estimamos que dado que para Aralar en relación al funcionamiento en dicha campaña nos era del todo imprescindible la utilización de dichos medios materiales, y habiendo solicitado un presupuesto de alquiler que suponía un montante de 34.800 euros estimamos la compra por parecernos más lógico en vista de lo elevado del alquiler y por estimar que cumplíamos la ley electoral en todos sus aspectos y recomendaciones².

Esperando sean aceptadas las alegaciones y a la espera del informe definitivo, mostramos nuestra entera disposición para cualquier aclaración suplementaria.

¹ Dokumentazioa kontuaren irekierari dagokio, ez AEHBri egindako jakinarazpenari.

² Ibilgetu materialeko elementuen erosketak hauteskunde aldia baino iraupen luzeagoa du eta ez da gastutzat hartzen Kontabilitate Plan Orokorraren arabera.

EAJ-PNVk EGINDAKO TXOSTENAREN ONDORIOEN GAINEKO ALEGAZIOAK

III.2. EPIGRAFEA. GOMENDIOAK

Eusko Jaurlaritzarentzako gomendio modura idatzitako paragrafo berria sartzea eta bertan azaltzea Euskadiko Hauteskundeen gaineko Legearen 144.7. artikuluan ezartzen den legezko derrigorra (Ogasun Sailak administrari orokorrei bigarren aurrerakin gisa eman behar die alderdi politikoei dagokien zenbatekoaren % 90^a ematea, %30eko lehen aurrerakina behin kenduta), alderdi politikoen kontabilitateetan disfuntzioak eta ageriko kalteak eragiten direlako eta honek eragin zehatza daukalako euskal hauteskunde legerian aurreikusitako legezko epeen betepenean.

Honen inguruan, EAJ-PNVren Administrari Orokor honek esan nahi du eskatu egin zuela Euskadiko Hauteskundeen gaineko Legeriaren arabera dagokion hauteskunde subentzioaren 2. aurrerakina eskatu zuela, eta Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Sailak derrigor hau bete ez izanak kalte zehatza eragin diola.

INTRODUCCIÓN

De acuerdo con lo previsto en la Ley 5/1990 de Elecciones al Parlamento Vasco modificada por las leyes 15/1998, 6/2000 y 1/2003 (en adelante LEPV), el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia (TVCP/HKEE) ha fiscalizado la contabilidad de ingresos y gastos de las candidaturas que obtuvieron escaños en las elecciones al Parlamento Vasco celebradas el 1 de marzo de 2009, o que solicitaron adelanto de la subvención electoral.

La fiscalización, de acuerdo con la normativa vigente, ha consistido en la verificación de los siguientes extremos:

- 1.-**El cumplimiento de las condiciones que establece el artículo 140 de la LEPV sobre la forma de presentación de la contabilidad de ingresos y gastos electorales.
- 2.-**La comprobación de que las cuentas bancarias abiertas o habilitadas, comunicadas a la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma (en adelante JECA), han sido las utilizadas por las candidaturas para la recaudación de fondos y el pago de gastos electorales, con las especificaciones que establecen los artículos 141 y 142.1 y 2 de la LEPV.
- 3.-**La disposición de los saldos de las cuentas abiertas para pagar gastos electorales previamente contraídos, dentro del plazo de 90 días siguientes al de la votación (artículo 142.3 de la LEPV).
- 4.-**La evidencia en las aportaciones de particulares del nombre, domicilio y número del documento nacional de identidad o pasaporte en el acto de la imposición (artículo 143.1 de la LEPV) y el cumplimiento del límite máximo individual de dichas aportaciones señalado en el artículo 145.4, actualizado en la Orden de 8 de enero de 2009, en 11.684,88 euros.
